

KAXARRANKA

Kaxarranka Lekeitio´ko arrantzaleen aspaldiko dantza berezi bat da.

San Pedro egunean, Bezperak abestu ondoren, erriko itxasgizonak, euren ondasun-zain zar eta barriagaz batera, ondasun-zain zarrenaren etxera joaten ziran, euren dantzari, danbolin eta erriko ikurriñagaz.

Aren etxetik arrantzaleen anaidi edo kofradiko kutxa atera, eta - zortzi morroskok sorbaldetan artzen eben. Eta kutxa gaiñean beste morrosko dantzari bat.

Morrosko onek San Pedro izena eukan. Eta veste morrosko bi eroiazan bere alboetan, oiñez. Eta onein izenak: San Juan eta San Andres.

Santuen jantziz jantzita joaten ziran: buruan turrua (mitra) eta koroia, arpegian mozorroa, eta soiñean abadeen meza emoteko soiñeko zabal-luzeak. Onezaz gaiñera, San Pedro´k urrezko giltza eroian eskuan.

Ibillaldian, batzuk zaldi-gaiñetan joiazan eta beste batzuk suiskulluz dunbadak jaurtitzen. Eta dantzariak ezpata-dantza dantzatuaz.

Iru dantzaldi egiten ditu kutxa gaiñeko dantzariak: ondasunzain zarraren etxean, ondasun-zain barriaren etxe aurrean, eta eleiz-aurrean azkenengoa.

Amazazpigarren gizaldian auzi luze bat izan eben dantzariak eta Kalahorra´ko gotzain jaunak. Oitura txarra zala ta kendu gurarik gotzaiña. Oitura ona ta oso zarra zala-ta, zaindu naian arrantzaleak.

Jarraitzen dau oraindik oitura orrek, zertxoren bat aldatuta ba-da be.

Orain, San Pedro bakarrik doa ibillaldian, ez bizirik, irudian baiño.

Eta kutxa gaiñeko dantzariak, praka zuriak ditu soiñean, garriko gorria ta txamarra baltza.

Irakurlea: Karmele Uriarte - Andereiñoa Balmaseda´ko Ikastolan